

# VIII. Jardunaldi Gastronomikoak, ohitura errotzen

Orain dela 8 urte, lehenengo Jardunaldi Gastronomikoak antolatu ziren herrian. Ordutik hona, egitaraua, ezaugarriak eta partaide kopurua aldatu da, baina helburua berdina da: ‘herritarrak gastronomikoki hezitu, kalitatezko eta zentzuzko kontsumoa bultzatzeko’.

**Jardunaldi Gastronomikoak, ekainaren 16a eta 21a artean izango dira.**

**E**kainaren 16an, astelehena, aurtengo Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpen saioa egingo da Lobiano Kultur Gunean, 19:45ean. Ekitaldi honetan, Rafael Gorrotxateguik parte hartuko du, Tolosako ‘Dulces Gorritxategui’tik. Honek txokolateari buruz hitz egingo du, honen ezaugarriak eta sekretuak azaltzen, eta jarraian, txokolate dastaketa egongo da. Sarrera librea izango da.

Martitzenean, hilak 17, 10 eta 12 urte arteko umeei zuzendutako ‘zapore tailerra’ egingo da. Ekitaldia 18:30ean hasiko da, Udal Liburutegian, eta bertan, Javier Rodriguez ingenierru eta enologoak, zaporeak ez-



berdintzen erakutsiko die umeei.

Ermuko hostalarien arteko pintxo lehiaketa asteazkenean hasiko da, hilak 18, eta domekararte, pintxoak dastatzeko aukera egongoa da, taberna bakoitzeko ohiko ordutegian eta 1’10 euroren truke. Epaimahaiaren ustez, pintxorik goxoen egiten duen tabernariak, diploma eta 200 euro eskuratuko ditu. Epaimahiako lehendakaria, Elgoibarko Be-laustegi jatetxeko Yosu Mugerza izango da eta honekin batera, Pantxo Bedialauneta, Ondarruko Cantabrico Tabernakoa eta Munduko Pintxo Lehiaketaren irabazlea, eta antolatzaileetako bat ere egongo dira. Epaimahiaren sariaz gain, herriko jendeak ere gustokoen duen pintxoari botoa eman diezaioke, eta boto gehien duen tabernariak, diploma irabaziko du.

Ostegunean, hilak 19, Valladolideko Gabino Jatetxeko Gabino Gonzalez sukaldariak dastatze-afaria eskeiniko du Txalaparta Elkartean (Las Vegas jatetxe zaharrean), 21:00etan. Afarian parte hartu ahal izateko, Solozabal estankotan izena eman beharko da, ekainaren 2a eta 13a bitartean.

Ostiralean, ekainak 20, Zarautzko Tala-Berriko jabea eta enologoa den Bixen-

te Izagirrek, txakoli dastaketa egingo du Lobiano Kultur Gunean, 19:45ean. Jarraian, txakoli dastaketa egongo da Udal Liburutegiko sarreran, musikarekin lagunduta.

### Gastronomia azoka

Larunbatean, hilak 21, VIII. Gastronomia Azoka egongo da Kardenal Orbe plazan. Bertan jatorri ezberdineko ardoak, txakolina, gazta, olioak, perretxikoak, oreina, txokolateak eta abar... dastatzeko aukera egongo da eta stand ikusgarrienak saria irabaziko du. Aurten gainera, antolatzaileek gastronomia eta musika herrikoia uztartu nahi izan dute eta Ermuan Kantuanek kantaldia eskeiniko du. Azoka 11:00etatik, 14:30era zabalik egongo da.

Arratsaldeko 18:30ean, bakailao lehiaketa ospatuko da plazan eta parte hartzen duten elkarte guztiek Errioxara txangoa egiteko aukera izango dute, Covila Bodegak bisitatzeraz.

Amaitzeko, Txistorrada herrikoia eskeiniko du Errotabarri Eskubaloi Taldeak plazan, 19:00ak inguruan. Bertan, ‘Eskubaloi txiki’ partiduak egongo dira eta Iru-litxa txarangak giroa alaituko du.

Dorleta Vidal



**ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA**

# EGAÑA

**ALDAGAILUAK**

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpet
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com